

h a u  
h a u

z luke balioko, agian, Rio de Janeiroko ihauterietan edertasunaren erregina izateko. Horren grinarik ere ez du izango ziuraski. Gainera, guk gehiago maite dugu horrela, geure ihauteriak gehiago maite ditugun era berean. Ez dute haien handitasunik izango (hori aldatzen ere ahaleginduko dira Bilbo-saltzaile gugenjeineroak), baina guk hemengoz gozatzen dugu. Eta ederto!!

# IHAUTERIAK 98:

## HIRINA + EURIA = LOKATZA

**Z**elan egin plataformarik gabeko karroza, nola adierazi telebistaren propaganda medatikoaren aurkako parodia, zelan egin diru gutxirekin konpartsaren mozorro guztiak hiru pertsonen artean. Zalantza guzti hauei gure konpartsakideen lanaren bidez erantzuna eman genien eta guztion artean lortu zuten euria berak zanpatu ezin izan zuen jaitsiera bat egiten. Honetaz gain beste gauza bat erakutsi ziguten: irudimena edukitzea dirua edukitzea baino garrantzitsua goa dela. Beraz Hau...Hautik ihauterien prestaketetan parte hartu duzuen guztiei gure ezkerrik beroenak. Sar gaitezen euria eta hirinarekin nahaztutako ihauterien kronika egiten.

### «E» egunean, «O» orduan

Hilabeteko prestaketaren ostean eta azpiegiturarekin arazotxo batzuk eduki ondoren (gauza batzuk ez dira inoiz aldatzen), konpartsako hogeita hamarren bat lagun (ia hurrengoan gehiago animatzen zereten) abiatu ginen Gran Vía-tik barrena telebistaz betetako kotxe baten atzetik abiatu ginen. Mad Maxen filmeen kutsua zeukan kotxearen atzean. Bi taldetan bananduta geunden, telebistaren aldekoan Aste Santuko prozesio batetan egongo balira moduan eta telebistaren aurkakoak berai irainak, ohiuak eta hirina botatzen. Tentsio handia nabaritzen zen batzuen eta besteen artean eta noski batzutan



eskuetara heldu ginen. Honela egin genuen jeitsiera osoa sirimiri eta euri tantatxo batzuk tartean (eskerak Bilbokoak garela, bestela itotzen gara). Nere ueste apalean inoiz eduki dugun jeitsierarik hoberena.

### Lokatza nonnabi

Gaueko parrandari buruz zer esan, batzuk ez zuten

nahiko lokatzarik eta gehiago bila ibili behar izan ziren, besteren bat ihes egin zuen koldarren moduan. Hortik kuleroak galtzen dabilen konpartsakide batek karrito-istripu baten ostean mutiko bat bidali zuen eritetxera eta gainera lapurketa bat jasan behar izan zuen. Azkenean Maroko aldetik etorritako lapurra harrapatu zuen, ze

nolako desohorea Ala-ren semea den lapur honentzako. Bukatzeko aipatzea gure beterano baten obsesioa goizeko zortziretan Alabeseko himnoa abesten behin eta berriz egon ostean arratsaldeko ordubietan ikusi zuten Plaza Berrian Ihauterietako sari banaketa ikusten, hori bai umorea.



# BILL CLINTON (Pitxabraba)



Clinton eta Sadam Hau Pittu Haun aritzea Nazio Batuen planaren barruan dago

**H**arrigarria da ze nolako ezberdintasun dauden herrien izakeren artean. Adibide moduan egin dezagun Euskal Herria eta Estatu Batuen arteko konparaketa bat. Bururatu Jose Antonio Ardanza Leioako Batzokiren militante bateri zakila erakutsi eta mamada

bat egiteko proposatzen diola, ba ez dut uste gure lehendakariak ertzantza Trebiño berreskuratzera bidaliko lukeela atentzioa desbideratzeko. Edo Joxe Migel Sanzek mezu bategin batekin gizonen arteko amodio historia bat edukiko balu ez luke berriro karlisten tropak altzatuko

Behenafarroa erreinu zaharrrera bihurtzeko. Hori bai, gure farreak Himalayan entzungo lirakeke. Beraz estatu batuar maiteak, ikasi eta Irakera bonbak botatze-ra joan beharrean gozatu momentuaz eta egizue farrezuen presidentez katxondo bat da eta.



**B**adaezpada norbaitek ezagutzen ez zaituen, aurkez ezazu zeure burua.

Aitor naiz, Hau Pittu Hauko konpartsakidea.

**Aste Nagusian «betiko konpartsakide» izendatu zintuzten, bozketaz. Baina zuk sari banaketan beste norbaiti eman nahi izan zenion. Zergatik?**

«Betiko konpartsakide»-ak ematen du beti egon naizela, eta ez da egia. Betikoak, izatekotan, izango dira urte gehien eman dituztenak eta nik baino urte gehiago eman dituztenak badaude. **Zutaz hitz egitean, akats bakarra kritikatu ohi zaizu: gehiegi hitz egiten duzula, aurrean grabagailu bat jartzen ez dituztenean ez bada. Defenda itzazu zeure izen ona eta ohorea.**

Defentsa egiteko, agian, eraso egitea izango da hoberena. Azken boladan sartu dira nik baino gehiago hitz egiten duten konpartsakide batzuk. Ez dut izenik eman nahi.

**Zure osasun arazoen burtsan mugimendu bortitzak eragin dituztela jakin izan dugu. Zer deritzozu?**

Agian medikamentuak erosten gastatu egiten dudan dirutzagatik izango da.

**Dena den, dagoeneko ospetsuak diren arazo horiek ez zizuten galarazi ihauterietan nahikoa parranda galanta egitea...**

Galantak luzea esan nahi badu, arrazoi duzu. Baina egin ditut galantagoak.

## zer dinostarun!



### «UA se opondrá...»

Oso ondo inuditzen zaigu egunkariak beren orrialdeak bete behar izatea, baina, non dago albistea? Eh?

### «El CGPJ...»

Berriz ere, euskarareriko duten egoera ondo erakutsi digute (euskara hizkuntza autoktonoa dela suposatuz): ez jakitea ez da arazoa. Alderantziz, jakitea meritua da. Zer meritu du, bada, usotegian dagoen usoak?

**B**adakizue, bururatzten zaizkizuen «labankada» guztiak hemen agertzeko postontzi bat jarri dugu pisuan. Heldu zaizkigunak orain doazkizue. Aurrera eta indarra lagundu zaitzate!!

- **Iurgi:** Ze ihauterietan Elexaldeko barra buruarekin garbitzen?. Mutil garaia egokian egindako ihesaldi bat garaipen bat omen da eta taberna bateko barra ez dela lo egiteko lekurik ona.
- **Sergio (Askapeña):** Lehenengoan jotzen duena birritan jotzen du. Ez dugu beldurrik eta hemen gaude berriro suari betagarri ematen. Agur jevilon.
- **Naska edo Pena?:** Enteratu gara. Zuek zarete

Ñ «españolísima»-ri sustengua ematen diotenak. Badakizue zer sortzen duzue gure baitan. Komando itinerantea.

- **Monika:** Gu ihauterietan eta zu ahateak ehizatu nahiean? Ehiza-aroa bukatu dela ez dakizu ala? Kua Kua askapen mugimendua.
- **Campillo:** benetan zu membrillo. Lekeitioko Kimuak.
- **Arkaitz:** Mundua zuri deika, mundua zuri deika, lurra hartu, lurra hartu. Despistearen aurkako komandoak.
- **Manu:** Zer dago Extremaduran?, Veronica Mengod hara joaten da oporretan?... Hala bada, ez izan lotsati eta etorri biok


Aste Nagusira HPH-koekin gozatzera.

- **R.I.P.:** Komando iratzargailua hil da. Konpartseroa zaren horri otoitz bat eskatzen dizugu bere arimaren alde. Mesa santua San Lorentzon (Baltzola ondolan) izango da. Ondoren familiak agur «bero» bat eskeiniko dio Indie-Betin. *La Familia ( Sicilia 1914).*
- **Gartz:** Hori ez dek horrela motel ! Azkenin ikisi bizu biar dan moduan berbetan. Segizu lanin, lortukozula euskara garbidjan berba eitia. *Txomin Agirre.*
- **XXX:** Denoi gustatzen zaigu PATXARANA beraz ea ikasten duzun zure burua kontrolatzen, ea Lasarten ez den Tafallako bera gertatzen. *Patxarana "biziki"*

maite dugunok.

- **Eneritz:** Zer demontre egin zenuen Galdakaon Arratiko «gizonakaz» ?
- **Sonia:** PUNKI!!!!!!
- **Iheslari hori:** Uste duzu militantzia eskibatu dezakezula? Uste duzu inor engainatuko duzula? Sozialak jada zure atzean dabiz!!! Komando Itinerantea.
- **Eñaut:** Gogoratu gelditu zarela nirekin filosofia eta gai metafisikoetaz eztabaiatzeko. Ihauterietako aurreko astean egindako nire lagun-min berria ere etorriko da. Sin: *El pistolas.*

## Euskara, gure hizkuntza bakarra



**Frantsesera, gaztelera eta euskara bertoko hizkuntzak dira.**

**H**erri honen berezko hizkuntza nazional bakarra euskara da. Herri bat, hizkuntza bat. Gainontzekoak estatu

espansionistaren hizkuntza kolonizatzaileak dira, eta historiak horrela frogatzen du.